

Funtsezko baliabideak

Proiektua aurrera egin dezan beharrezkoak diren baliabideak hurrengoak dira:

BALIABIDE FISIKOAK

- Lortu behar dugun garrantzitsuenaren gure jatetxea sortu ahal izateko lokal bat da, bertan menuak egin eta saldu ahal izateko. Lokala Alhondigako inguruan kokatzea erabaki dugu.
- Oso garrantzitsua da ere baliabide gisa altzariak izatea, horiek gabe ezin baitugu gure jatetxea sortu, besteak beste, apalak armairuak.
- Sukaldea, horretarako ere hainbat altzari eta etxetresna elektriko behar izango ditugu. Sukaldea lokalean egon ahal izateko hainbat lizentzia behar dira (funtsezko jardueran azaldutako guztiak).
- Ordenagailua, kutxa erregistratzailea eta programa informatikoak ticketak inprimatzeko eta diruaren kontrola eramateko.
- Datafonia, txartelaren bidez ordaintzeko.
- Datafonoarekin batera Wifi-a behar izango dugu datafonia erabili ahal izateko.
- Furgoneta, astean behin alokatu eta erabiliko dugu elikagaiak erosteko eta jatetxera ekartzeko.
- Gure jatetxearen ere, beharrezkoak izango dira nahitaez elikagaiak, menuak sortu ahal izateko, zehazki, KM-0ko elikagaiak.

GIZA BALIABIDEAK

- Langile bat kontratatuko dugu, sukaldari bat, gutxienez erdi mailako sukaldari gradua duena eta noski, elikagaiak manipulatzeko titulazioa duena. Gu, Iraia, Marta, Leire, Estizen, Eider, aldiz, zerbitzariak izango gara eta negozioa kudeatuko dugu jatetxea aurrera eraman ahal izateko.

BALIABIDE UKIEZINAK

- Sare sozialak izango ditugu gure jatetxea ikusgarri egin ahal izateko, instagram eta tik-tok, eta kontu hauetan gauzak igotzea gure esku ere egongo da.
- Webgunea

BALIABIDE FINANTZARIOAK

- Bakoitzak 3.000€-ko ekarpena egitea erabaki dugu, beraz, guztien artean 15.000€ bilduko ditugu.
- Eusko Jaurlaritzak Turismo-negozio berriak sortzeko laguntzak eskaintzen ditu. Gehienezko diru laguntza gastuaren % 40 izango da, 18.000 €-ra arte. Beraz, gure negozioa sortzeko gure gastuak 23.180€-koak izango direnez, Eusko Jaurlaritzak 9.272€ emango dizkigu. Beraz, ez dugu mailegurik eskatuko guztien artean 15.000€ batuko ditugulako eta Eusko Jaurlaritzak 9.272€ emango dizkigulako
- Jatetxea aurrera eraman ahal izateko, Fiare kutxari 15.000€-ko mailegua eskatuko diogu.